




MILATIK LAU

Trece entre mil (Iñaki Arteta, 2005) dokumentala

Iraupen osoa: 90 minutu



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

MAILA

DBHko bigarren zikloa.

HELBURUAK

- + Terrorismoak gure herrialdean egindako ekintza lazgarriak ezagutzea, haren biktima batzuen lekukotasunetatik abiatuta.
- + Terrorismoaren biktimen testigantzak errespetatuz, haien sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzea eta haien erantzun eredugarria baloratzea.
- + Terrorismoaren biktimen kasuan justiziaren eta memoriaren beharrari buruz hausnartzea.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen egokiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu, eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetza baketsuaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 70 minutuko modulu baterako pentsatuta dago. 10 minutu dokumentala ikusteko eta 60 minutu gainerako jarduera egiteko.

BALIABIDEAK

Bartzelonako Hipercor hipermerkatuaren aurkako atentatuari buruzko *Trece entre mil* dokumentalaren zatiak. Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala eta boligrafoak. Gailu mugikorrek ere erabil daitezke, hala nola smartphoneak edo tabletak.

EGILEA

Roncesvalles Labiano

IRADOKITAKO JARDUERA

Trece entre mil dokumentalaren zatiak ikusi aurretik, ikasleak hurrengo jarduera banaka egitera gonbidatzen ditugu (3 minutu inguru).

Zure ustez, nola sentitzen da terrorismoaren biktima bat?

Hurrengo taulan, ziurrenik ezagutuko dituzun sentimendu edo sentsazio batzuk jasotzen dira. Irakur itzazu astiro, eta adierazi zein diren atentatu batean maite duten pertsona bat galtzean terrorismoaren biktima baten senideak nola sentitzen diren ondoen irudikatzen duten hirurak. Terminoren batek zer esan nahi duen ziur ez bazaude, interneten bila dezakezu definizioa. Beste termino batzuk ere gehi ditzakezu.

Sumindura	Tristura	Mina	Justizia nahia
Amorrua	Abandonua	Beldurra	Mendeku nahia
Gorrotoa	Barkamena	Sinesgogortasuna	Bakardadea
Etsipena	Erresumina	Galera	Beste batzuk (adierazi zein)

Behin terminoak aukeratuta, Iñaki Arteta zuzendariaren *Trece entre mil* dokumentaleko minutu batzuk ikusteko unea da. Dokumentalean terrorismoaren biktimen senideek hitz egiten dute. Hautatutako zatiak 1987ko ekainaren 19an Bartzelonako Hipercor hipermerkatuan 21 pertsona hil zituen ETaren atentatuari buruzkoak dira.





Bartzelonako Meridiana etorbideko Hipercor merkataritza-guneko aparkalekuan bonba-auto batek eztanda egin ostean, 21 pertsona hil dira eta 45 zauritu — lokaleko bezeroak eta langileak — (1987/06/19). EFE.

Ondoren, ikasleak lauzpabost pertsonako taldetan biltzera gonbidatzen ditugu, honako galdera hauei erantzuteko. Horretarako, internetetik laguntza jaso dezakete:

1

Dokumentala ikusi ondoren, aurreko taulako zer hiru terminok irudikatzen dute ondoen ETaren terrorismoaren biktimen senideek atentatuaren osteko lehen uneetan sentitu zutena?

2

Dokumentalean ikusten denez, senideek ahal zuten guztia egin zuten aurrera egiteko eta seme-alabak gorrotoan ez hazteko. Mina izan arren, biktimek ez zioten indarkeriari indarkeriaz erantzun, ez ziren mendekua hartzen saiatu. Zer iruditzen zaizu erantzuteko modu hori? Zer gerta zitekeen bestela jokatu izan balute?

3

Zer alde dago mendeku nahiaren eta justizia nahiaren artean? Zertan datza justizia? Zuen ustez, beharrezkoa da biktimek maite dituzten pertsonen galera gainditu ahal izateko?

4

Zuen ustez, beharrezkoa da biktimen lekukotza horiek gogoratzea horrelakorik berririo gerta ez dadin?

Azkenik, taldeen gogoetak partekatzea proposatzen da.